

Zergatik egiten dugu ametsetan?



Ametsak etxeko zinema bezala dira, eta ohea da besaulkia. Zinema honetan doako pelikulak ematen dira, eta gu gara pelikula honetan protagonista. “Maindire Zurién” zinema da.

Baina, zergatik egiten dugu amets? Hori subkontzientearen gauza da, gure burmuinaren gau-zaintzailearena. Lo gauden bitartean, berak proiektatzen dizkigu irudiak, esna gaudenean ardura edo kezkatzen gaituzten gauzei buruzkoak.

*Loak hartuta nengoela
opari eder bat izan dut
guztiok zoriontsu garela
amets egin baitut*



“GAUZEN ZERGAITIKOA” Carlos Reviejo, SUSAETA argitaletxea

HIZTEGIA:

Besaulkia: Zineman dauden eserlekuak.

Maindire: Izara. Ohean manta azpian jartzen diren oihalak.

Burmuina: Garuna, zerebroa.

Kezkatu: Arduratu

Erantzun galdera hauek:**1. Zeri buruz hitz egiten da testuan?**

☐ Pelikulei buruz hitz egiten da.

☐ Ametsei buruz hitz egiten da.

2. Zergatik deitzen diote zinemari “Maindire Zuri

Zinema”?

☐ Zineman kolore zuriko maindireak daudelako.

☐ Ohean, maindire zuri artean, amesten dugulako.

3. Testu honetan ametsetan ikusten diren pelikulak, zeri buruzkoak dira?

☐ Marrazki bizidunetakoak.

☐ Ardura edo kezkatzen gaituzten gauzenak.

☐ Egan egiten ari garenak